



# ANAITASUNA

AÑO I—Núm. 12

Suplemento a la Hoja  
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Junio 1954

## KRISTIÑAU AURRERATUAK

Frantziako Euskalerrian iñoizko baten domeka egunez bazagoz, ez zaitetz geratu meza nagusitara joan barik. Esaterako, sartu zaitetz neguko jai egun baten Donibane Lohitzuneko eleiza ederrean.

Eleiza guztia bete bete eginda dago: beean emakumeak, koruan eta tribunetan gizonetzkoak. Danak dozuz euskaldunak, danak bertan jaiorikoak. Ez dira etorri craindiño uda denporako arrotzak. Mezea asi da. Erri osoa kantetan asten da. Zar eta gazte, gizon eta emakume, mutil eta neska, aundi ta txiki, danak diñardue kantuzko otoitz ederrean. Ago bat eta biotz bat eginda, kantuaren bitartez erakusten deutsoe Jainkoari euren egiazko kristiñau anaitasuna. Guztiak anaiak, guztiak kristiñauak, guztiak altarako maiaren inguruan kantetan.

Frantziako Euskalerrian, ixildu beitez boz askotako mezak koruan **eurak bakarrik** kantau gura dituen mutillak. Ez beie agoa zabaldu, eleiza erdian kanta politak **bakarrean** abestu nai dabezan neskutillak. Bidasoaz andiko gure anaien eritxiz, banaka batzuk bakarrik kantau ezkerero, eleizkizunak otzak izaten dira eta lo eragingarriak. Danak abestu ezkerero barriz, gure otoitzak bestelako sarkontasuna ta zabalerea ta indarra irabazten ditu. Jai aundiago, erri osoak eleizkantu ta otoitzetan leku

geiago. Auxe da bide zuzena, auxe da ogeigarren gizaldiko kristiñau aurreratuari jagokon mezea entzuteko modua.

Errazoa daukela uste dot. Ain zuzen-bere, gure egunotan, gizaseme guztien alkar anaitasuna iñoiz baiño estuago sentietan dogulako-edo, norberaren balioa obeto aintzat artzen ikasi dogulako-edo, **batzan** gura izaten dogu bear egin, eta iñok egiten daben edozein arazotan **parte artu**. Naiz lanean naiz jolasean, zein politikan zein erlegiñoan, gauko gizonak geroago ta leku aundiago euki nai dau. Orrexegaitik, Ekintza Katolikoa gure egunotan sortu da, ta Gorputz Mistikoaren dotriñea iñoizko ondoen ulertzen da.

Ondo ekian au San Pio Amargarrenak, eleizetan erri osoak kantau eiala agindu ebanean. Ondo ezagututen eban ogeigarren gizaldiko kristiñaua, eleiza osoa koru biurtu ebanean.

Abestu daigun guztiok eleizan. Ez bakarrik neskak eta mutikoak. Erantzun deiogun pozarren San Pio Amargarrenaren deiari. **Ez daiguzan itxi koruko kantuak, baiña maite daiguzan geien geien** — berbaz eta egitez — erri osoak abestuten dituanak. Izan gaitez kan kristiñau aurreratuak.





## KONFIRMAZIÑOKO SAKRAMENTUA

3.—Obispoak, Konfirmaziñoa emoten asten danean, oraziño bat esaten dau, Sakramentua artuko dabenez buruaren gainean eskuak zabaldua daukozala. Gero, **Krisma Santua** deritxon orioan bere atzamar lodia bustita, igortzi egiten deuta bekokia, berba oneek esaten dituan bitartean: "Nik kurutzearen seiñaleagaz seiñaletan zaitut eta salbaziñozko Krismeagaz konfirmetan zaitut Aitarren ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean." Eta zapladatxu bat emoten deutso arpegian.

Esaidazu: Konfirmaziñoeko Sakramentua emoteko, Obispoak egiten dituan gauza guztien artean, zeintzuk dira bear bearrekoak?

- a) buruaren gainean eskuak zabaldu?
- b) Krisma Santuagaz bekokia igortzi?
- c) igortzikeran Sakramentuaren berbak esan?
- d) arpegikoa emon?

4.—Zer da Krisma Santua?

5.—Zer egiten dau Konfirmaziñoeko Sakramentuak kristiñauaren ariman?

## BIZKAIKO OBISPO JAUNARI

(Areatzako eleizan abesturiko bertsoak)

Gure Gotzaiña dogu  
Kasimiro Jauna,  
Bizkaiko artaldearen  
Artzaiñik onena.  
Jainkoak emon beio  
Berari osasuna,  
Bakezko bizitzeaz  
Goiko zoriona:  
Auxe da biotzetik  
Opa deutsoguna.

Otso gaiztoak dabiz  
Artegi egaletan,  
Bitsa darioela  
Euren agiñetan,  
Sartu gura izanik  
Ardi txaboletan.  
Arrapau ez gaiezan  
Erdi amesetan,  
Adi egon gaitez  
Une guztietan.

Geure Gotzain maitea,  
Entzun egiguzu:  
Bizkaiko artaldea  
Deadarrez daukozu.  
Otsoak ez daiezan  
Ardiak ondatu,  
Arren! geure Artzaiña,  
Lagun egiguzu,  
Zeruko zoriona  
Ez dagin galdu.


*Balentin Enbeita*

### "ANAITASUNA"ren Irakurle

ordaindu lenbailen zure orritxua.  
Orretarako, emoiozu dirua orritxuak zabaltzen dituan personeari

Euskaldun neska - mutillak,  
"ANAITASUNA" zabaldu gura badozue, bialdu zuen izenak zuzenbide onegaz:

*R. P. Rector*  
Colegio Seráfico  
FORUA (Vizcaya)



# Illeko Ipuina

## KUKUBEL

Umezurtza zan Kukubel, artzaiña ta neskato ona gaiñera; musikazale utsa. Zii ta arte ta ezpelezko instrumentuak egiten, apartekoa zan gero beral

Kukubelek egiñiko txistu ta txilibituak, amaika txori zoratu zituen eta pozarren kantetan ipiñi! Ardiakaz larra ta bedartzetan ebillen artean, eleizaren bateko txiliñak ots egiten eban bakotxean, ez eban iñoiz itxiko Agur Maria bat esan barik.

Bein, bere errezu ostean, Andra Maria bera agertu jakon, eta maitasunez beterik berba oneek zuzendu eutsazan:

—Neskato, zer gura dona saritzat?

Nik, txilibitu bat nai neuke, entzuten dabenari jantzan eragiteko.

Berbertan sortu jakon instrumentu ori eskuan. Pozarren asi zan Kukubel txilibitua joten, eta ardi ta bildots, txistua entzundà, triska ta triska jantzan asi zirean.

Erri atako alkatea kazerua zan. Beste asko ta askotan lez, egun atantxe-be, inguru aretaraxe eldu zan alkate eiztaria, ta sasi artean egoan ostenduta, erbia noiz etorriko. Kukubel, zer jazoko zan burutan artu barik, bere txilibitu barria joten asi zan; ta alkatea triska ta triska, sasitzako arantza zorrotzak soiñeko ta aragiak

urrutuarte, jantzan ibilli zan. Aren asarrea, txilibitua ixildu zanean!

Gaba gaiñera etorri baiño lenago, Kukubel sorgiña zala ta urkamendira eroan bear ebela asi zan esaten alkatea. Orduan, errikoak atrapau egin eben neskatoa ta lotuta euki.

Biamonean urkamendira eroiela, erri guztia joian bere inguruan. Alako baten, Kukubeltxuk mesede bat eskatu eutsen: il bear baeben-be, eskuak askatu eioezala, indar barik eukozala-ta. Alkateak aren eskuak libre ikusi ebazanean,

—Gizonak, badaezpadan-be lotu naizue aga bateri — esan eban.

Lotu ebeneko, Kukubeltxu, arako txilibitua paltrikeratik atarata, joten asi zan. Bere ots gozoa entzunda, erri guztia jantzan asi zan. Alkatea bera-be, lotuta egonarren, tauntaunka ebillen eta barrearen barreaz ito bearrik.

Soiñu luze, zoli ta eztitsua amaitu zanean, Kukubeltxu libre itxi eben.

\* \* \*

Ipuin onek auxe irakasten deusku: Sarri askotan, gu onak izanarren, txartzat artuko gaituela, eta orregaitik asko sufridu bearko dogula; baiña azkenean, ontasunean irauten badogu, gure errueza danen aurrean agertuko dala.



